

**LEGEALDI HASIERAKO AGERRALDIA LEGEBILTZARREKO KULTURA, EUSKARA ETA KIROL BATZORDEAN,  
SAILAREN LEGEALDIKO ILDO NAGUSIEN BERRI EMATEKO**

**2020-10-28 (9:30etan).**

**Bingen Zupiria Gorostidi**

Batzorde-buru andrea, legebiltzarkideok, egun on guztioi.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren arduradunok datozen lau urteetarako aurreikusita ditugun jardun-lerro nagusien berri ematera gatoz Batzorde honetara.

Batzorde-kide zaretenon aurrean, gure ardura zintzo eta leial beteko dugula adierazi nahi dugu: arduraz, apaltasunez eta konpromiso osoz hartzen dugula gure egitekoa, bereziki konplexua eta zaila izaten ari den, eta izango den garai honetan, zuekiko errespetuz eta gizarteari zerbitzua emateko helburuz.

Agintaldi honi begira Lehendakariak Kultura saila mantentzea erabaki du eta aurreko agintaldian izandako jardun-arlo berberak mantenduko ditu. Kultura, Hizkuntza Politika eta Kirolaren arduraz gainera, Gobernuaren bozeramaletza ere gure Sailean kokatu du. Eginkizun berriak izanagatik, gure sailaren egitura ez da aldatu eta lan berriek egitura berririk ekarri ez duen arren, sailaren egiturak bete betean erantzungo die bere esku dauden Kultura, Hizkuntza Politika eta Kirolaren arloei. Aurreko Legealdiko egitura berbera izaten jarraituko du, beraz. Hau da, Kultura Sailburuordetza, Hizkuntza Politika Sailburuordetza eta Jarduera Fisikoa eta Kirol Zuzendaritza.

Gainera, irailaren 6ko Lehendakariaren 18/2020 Dekretuaren arabera sailari atxikita jarraitzen dute honako erakunde publikoek: HABE, Etxepare Euskal Institutua, EITB, Basque Team Fundazioa, Euskadiko Orkestra eta Euskal Herriko Gazte Orkestra.

Arlo hauen arduradun izango dira

- Andoni Iturbe, Kultura Sailburuordea.
- Hizkuntza Politika Sailburuorde jarraituko du Miren Dobaranek. Gaurkoan ez da gurekin, aspalditik hitzartutako beste zeregin batean ezin zuelako hutsik egin Gobernu ordezkatuz.
- Etxepare Euskal Institutuaren zuzendari izango da legealdi honetan ere Irene Larraza.
- Eta, azkenik, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendari, Jon Redondo. Gure artean dira biak gaurkoan.

Gure gizartea eta mundu osoa jo dituen aurrekaririk gabeko egoera pentsaezin baten erdian hasi da legegintzaldia. Agintaldia berria da bai, baina joan den martxoan lehertu zen COVID izurritearen itzala ez dugu gainditu, eta horren baldintzapean jarraitzen dugu. Datozen hilabeteetara begira jarrita ere ziurgabetasuna da nagusi. Inork ez daki ze bilakaera izango duen pandemiak, eta nola eragingo digun gizarte eta herri bezala. Ezta zenbat iraungo duen ere. Argi dago gaixotasun honekin bizi beharko dugula denbora luzez, eta unean-unean egokitu egin beharko garela denok. Eta Eusko Jaurlaritzari, osasun arloko mediku eta jakitunen esanak entzun eta egunez egun erabakiak hartzea dagokio.

Ez da erraza izan martxoaz geroztik Kultura, euskara eta kirol arloetan pandemiaren eraginei aurre egitea. Eta ez da erraza izango. Berez, aurrez aurre egin ohi diren jarduera asko eta asko bertan behera geratu dira eta beste asko modu mugatuan garatzen ari dira. Toki itxietan, edo modu ibiltarian, edo taldeetan egiten diren jardunak mugatuta daude eta egongo dira, gora behera askoren erdian. Egoera honek beldurra, kezka eta egonezina sortzen ditu.

Martxoaz geroztik ahalegindu gara beste herri erakundeekin batera lan egiten, eta kultura, hizkuntza politika eta kirola posible egiten duten era guztietako eragileekin harremanetan egoten, egoeraren azterketa egin eta posible izan den kasuetan neurri aringarriak edo lagungarriak eskaintzeko helburuz. Kasu askotan, seguru nago ez dugula asmatu edo berandu ibili garela.

Zoritxarrez, oraindik aldi luzea igaroko beharko dugu estualdi honetan, gure bizimodu normala mugatuta ikusiko dugu eta jardun asko bertan behera edo ikututa geratuko dira. Hitz ematen dugu beste erakundeekin batera lanean jarraituko dugula, eta gure sailaren esku dauden arloetako ordezkari eta eragileekin lankidetzan egoerari aurre egiten saiatuko garela, orain arte egin dugun bezala.

Baina gaurkoan ez dugu aurkezpena honetan soilik zentratuko, egoerarik hurbilenari erantzuna emateaz gain, hurrengo urteei begira ere lan egin behar dugula uste baitugu. Gobernu Programan hainbat ekimen, ezinbestean, aurreko legealdian abiarazitakoen jarraipena dira, eta orain finkatu eta indartu egin behar ditugu. Beste hainbat ekimen orain jarriko ditugu martxan, eta berritzaileak dira. Eta beste batzuk, nola ez, Covid-19aren egoeraren ondorioz ekarri ditugu gure agendara. Zalantzarik gabe izurriaren ondorioak kudeatu beharra izango dugu, baina ezin diogu uko egin kultura, euskara eta kirol arloetan 2030eko Euskadi eraikitze bide orriari. Gaur ereindakoa biharko uzta izango da. Deskribatutako testuinguruak are handiago bihurtu ditu gure herrian Kulturak, Euskarak eta Kirolak berez dituzten erronkak.

Gobernu Programan jaso ditugu gure konpromiso eta egitasmo nagusiak, baina ez dira Gobernuak, edo gure sailak berak bakarrik eta alde bakarrez gauzatu ditzakeenak. Kontrakoa: **gure konpromiso nagusia, eta baita beharra ere, lankidetzan aritzea da**: gobernu barruko eta herri-erakundeen arteko lankidetzan batetik. Jaurlaritza, Foru Aldundi eta udalen artean partekatutakoak ditugu gure hiru arloetan eskumenak. Gai izan beharko gara, bakoitza dagokion esparruan, ongi koordinatzeko eta elkar-osatzeko eta gure baliabide eta bitartekoei probetxurik handiena ateratzeko, horiek gizartearen zerbitzura jarri eta honen mesedetan erabiliz.

Elkarrizketarako esparruak martxan ditugu: Hakoba Kultura, Kulturaren Euskal Kontseilua, Kultura Auzolanean, Hakoba Hizkuntza, Euskararen Aholku Batzordea, Hiruko Ituna, Kirolaren Euskal Kontseilua... Eta orain, inoiz baino gehiago, koordinaziorako eta eraginkortasunerako foro izan behar dira. Elkarrizketari ez ezik, ekintzari bide eta bultzada emango dioten espazio bilakatu behar ditugu. Lankidetzak baita ere sektoreekin eta eragileekin. Konpromiso hori hartu genuen, -eta gure ustez gauzatu ere bai-, aurreko legealdian. Gaurkoan, legealdi berri honen hastapenetan, berretsi egiten dugu konpromiso hori, zuon aurrean. Zuok zarete Legebiltzar honetan herritarren ordezkariak. Uztailaren 12ko hauteskunde ondoz aldaketak izan dira batzuk eta besteek daukazuen ordezkarietan. Batzorde hau osatzen duen asko berria zarete. Aldaketak aldaketa, Legebiltzarra eztabaidarako eta akordioak eraikitze tokia da. Denon esku dago bide hori egitea. Denborak eta jardunak esango digu horretarako gai izan garen.

## KULTURA

Atarikoak esanda, arloz-arlo xehetuko ditugu gure konpromiso eta egitasmoak.

Kulturarekin hasiko naiz.

Gobernu Programan jasota datorren bezala, Kultura politikari dagokienean BOST konpromiso nagusi finkatu ditugu legealdi berrirako. Konpromiso hauek, lerratuak daude, nola ez, orain dela urte bete, Batzorde honetan bertan aurkeztu genuen Kultura 2019-2022 Planarekin. Baina Covid-19ak eragindako egoerari eta bertatik ateratako ikasgaiari erreparatuz batetik, eta bestetik, epe luzeagoko begirada txertatuz, lau urteko bide orria definitu dugu.

Horrela ba, gure **lehen konpromisoa kultur sortzaile eta ekoizleekikoa** da. Izurritearen ondorioek agerian utzi dute euskal sortzaile, artista eta kultur arloko profesionalen zaurgarritasuna, baina baita gaitasuna ere. Euskal

[INFORMAZIO GEHIAGO / MÁS INFORMACIÓN](#)

kulturgintzaren sorkuntza gaitasuna ez dago ezbaian. Eta Kulturaren munduak behar beharrezkoa du, bere muina delako, sortzeko eta kalitatez sortzeko eta ekoizteko gaitasuna. Baina, kultur-sorkuntza horrek behar ditu baldintza egokiak sortzaileek sortzen jarraitu ahal izan dezaten modu egoki batean, batzuk modu profesionalean, beste batzuk sorkuntza-lan hori beste jarduera batzuekin osatuz. Datozen lau urteetarako eginkizun nagusietako bat izango da kontu hau.

Euskadik Herri sortzailea izaten jarraitu behar du. Eta garrantzitsua da sorkuntza-giro hori zaintzea, bai herritarrok kultura-produktu berri eta egokiak izan ditzagun, eta bai gure Kulturak erreferentzialtasuna izan dezan gure lurretik kanpo. Horregatik, sortzaile, artista eta profesionali laguntza eskaintzen jarraituko dugu, eta laguntza horiek beharizan berrietara egokituko ditugu. Garrantzi handia hartzen dute, zentzu honetan, sortzaileen lan baldintzek eta profesionalizazioak. Izan ere, alderdi horretan ageri dira kulturaren sektore eta profesioen ahuldade nagusiak: profesionalizazioan, lehiakortasunean, egituraketan eta kudeaketa alorrean. Hain zuzen, lehen konpromiso honen baitan kokatzen da profesionalizazioari lotutako gure lehen egitasmoa: kultur profesioen inguruko estatus bat sortzeko lan egin behar dugu.

Eginkizun honen oinarria, kultura sektoreen itxaropena piztu zuen eta Madrilgo Kongresuak 2018an onartu zuen Artistaren Estatutuaren inguruko aho bateko mozioan dago. Baina bi urte igaro dira, eta testu hark ez du jarraipenik izan, eta ez dira behar diren neurriak hartu Estatutu hark bere garapena izan dezan, arau, lege edo beharko liratekeen neurriekin.

Ondorioz, eta bereziki Covid garaian hain geratu denez agerian erregulazio eta profesionalizazio egoki baten beharra, gure asmoa da Estatutu edo horren baliokide izango litzatekeen araudi bat osatzeko pausuak ematea, Euskadin kulturako profesioetarako.

En el marco expuesto nos proponemos:

- Estudiar, en colaboración con las Diputaciones Forales, la revisión de las normas de fiscalidad para los y las trabajadoras de la cultura, con el fin de que los sistemas tributarios forales puedan tener en cuenta las singularidades del trabajo cultural. También plantearemos iniciativas para desarrollar fórmulas de mecenazgo y micro-mecenazgo en el ámbito cultural.
- De manera coordinada con el resto de las instituciones vascas, deberíamos acordar un código de buenas prácticas para la contratación de profesionales de la cultura.
- Creemos que es también importante lograr una validación o reconocimiento del recorrido profesional de las y los profesionales de la cultura, en creación, mediación o aspectos técnicos, de forma que puedan ser valorada en la enseñanza reglada y, en especial, en la enseñanza profesional.
- Incentivaremos la formación en gestión y competitividad de las y los autónomos y de las micropymes del sector cultural y creativo y apoyaremos en emprendimiento en el sector.
- Fomentaremos, en colaboración con el Departamento de Educación y la comunidad educativa y el resto de las instituciones vascas, programas dirigidos a mejorar las capacidades creativas en la infancia, la adolescencia y la juventud y su interés por la creación artística y cultural.

En todas estas medidas de apoyo a la creación y producción cultural y a la profesionalización del sector, adquirirá un importante peso el apoyo específico a la cultura creada y vivida en euskera, así como la cultura creada por mujeres. En este sentido, continuaremos con nuestro firme compromiso de favorecer el empoderamiento de las mujeres en el ámbito cultural y de visibilizar tanto sus creaciones actuales como su aportación a nuestro patrimonio cultural y a nuestro imaginario colectivo. El euskera y la igualdad constituyen así dos ejes transversales de nuestra línea de acción de apoyo al sector.

Gure bigarren konpromisoa da Euskadin kultur eskaintzaren iraunkortasuna bermatzea eta berriro ere egoerak ahalbidetzen duenean, indartzea, eskaintza hau gero eta erakargarriagoa bihurtuz, ahalik eta publiko zabalenera iritsiz, izan euskal erkidegoan zein nazioartean.

Orain gutxi irakurri genituen Norman Fosterren hitzak egunkari batean, zeintzutan azpimarratzen eta txalotzen zuen Euskadik duen museo-eskaintza, esanez ez dagoela munduan Bilboren neurriko hiririk Guggenheim eta Arte Ederren pareko bi museo dituenik. Poza eman zidan aitorten honek Fosterren ahotan. Aitorpena euskal gizarteari. Museo hauen oinarrian euskal gizartearen babesa dago. Euskal herritarrek ahalbidetzen dute mundu mailan erreferentziazkoak diren bi museo horiek Euskadin egotea. Aipatutakoez gainera, beste hainbat museo, gune eta kultura-emanaldi ditugu maila handikoak, Euskal Herrian errotuak eta munduari zabalik: Artium Museoa, Chillida-Leku, Balentziaga Museoa, Tabakalera, Musika Hamabostaldia, Orkestrak, Zinemaldia, Zinebi, Jazzaldiak, batzuk aipatzeagatik.

Kultura-erakunde horietako bakoitzak bere estrategia du, eta guri dagokigu guztiak estrategia nagusiago batean sartzea eta bultza egitea. Aipatutako eskaintza hori etenda egon da, eta mugatua dago, Europa eta mundu osoan bezala. Baina pasako da. Euskadi kalitatezko kultura eskaintzen den eremu geografiko erreferente gisa kontsolidatzen eta indartzen jarraitu nahi dugu legealdi honetan. Nazioartera begira eta bertako herritarrei begira.

Sortzaileak baditugu, arestian esan dugunez; sorkuntza hori erakusteko guneak eta jarduerak ere bai; kanpoko artista eta kultur-eragileen aitortza ere bai; munduko plazan Euskadi ezagutarazten laguntzen diguten sortzaile, kultur-erakunde eta ekitaldiak baita ere... Elementu horiek guztiak uztartuz eta konektatuz eraiki nahi dugu Kulturaren Euskal Hiria. Urratsez urrats egingo dugu. Badugu nondik hasi. Nazioarteko proiektioa duen Artearen Euskal Sistema eratzea da asmoetako bat. Sistema hau hainbat eragileen arteko lankidetzeta eta osagarritasuna indartzean datza. Zein dira eragile horiek? Museoak eta arte-zentroak (Guggenheim, Bilboko Arte Ederak, Artium, Tabakalera, San Telmo, Balentziaga, Chillida-Leku, BilboArte edota Azkuna Zentroa...), prestakuntza-espazioak, sormen- eta hausnarketa-espazioak, galeriak eta sortzaileak. Hitz batean, Artearen Euskal Sistema eratzearen helburua da arte garaikidea Euskadin lantzen duten eragile guztien lankidetzeta antolatzea, sorkuntzaren sustapena bultzatzeko, haien lanaren bikaintasuna areagotzeko, mundu mailako harremanetan sakontzeko, merkatuak zabaltzeko aukerak aztertzeko eta euskal gizarteari kalitate handiagoko eskaintza gero eta zabalagoa egiteko.

Ildo beretik, begiz jota dugu baita ere kultur jaialdien esparrua, oraindik aztergai badugu ere: bereziki literatura, musika jaialdiak eta ikus-entzunezkoak. Kultur zirkuituen osagarritasuna bilatu behar dugu eta hauek gehiago nazioartekotzeko ahalegina egin behar dugu. Eta noski, horietan, euskal sortzaileen presentzia sustatuko dugu. Honetarako, ezinbestean, euskal hiriburuekin elkarlanean arituko gara. Museoen inguruan beste aipamen bat egin nahi nuke, gure arreta-gunea ez dagoelako soilik museo handietan. Gure jardunetako bat izango da Euskadiko museoaren sarearen eredia berritzea, bere potentziala modu eraginkorragoan eta koordinatuagoan kudeatze aldera. Eredu horrek Euskadiko museoaren aniztasuna aintzat hartu beharko du: txikiak zein handiak; publiko zein pribatuak; monografikoak zein orokorrak; etab. Guztiek osatzen dute gure museoaren ekosistema aberatsa.

Eskaintzarekin jarraituz, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea handitzen jarraitzea da gure asmoa. Aurreko legealdian 226 liburutegira iritsi ginen. Legealdi honetan ere, sare hori osatzen jarraitzea da gure helburua. Horrekin batera, euskal liburutegien katalogo kolektiboa aberasten jarraitzea ere bai. Era berean Irakurketa Sustatzeko Euskal Plana zehaztu eta onartuko dugu legealdi honetan, erakunde arteko eta hezkuntza alorreko zein gizarteko beste hainbat eragilerekin batera.

Bestetik, pandemia garai honetan garrantzi berezia hartu du eliburutegiak, eta olatu hau baliatu nahi dugu erabiltzaile berrien kopuruari eusteko, eta areagotzeko. Izan literatura, antzerkia, zinema, museoak, musika...

sektore guztietan egin beharko da ahalegina kontsumoa indartzeko, eta ahal den neurrian, kontsumituko den horretan euskal kultura presente egon dadin.

Kontsumo kulturala sustatzeko lan horretan, jada ibilbide bat egin dute Foru Aldundiek eta udalek, eta haiekin koordinazioan jarraituko dugu Jaurlaritzaren ekarpena osagarri izan dadin.

Eskaintzaren konpromisoan kokatzen ditugu baita ere Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren baitako bi altxor: Euskadiko Orkestra, eta Euskal Herriko Gazte Orkestra. Euskadiko Orkestrak geroz eta oihartzun eta ospe handiagoa irabazi du atzerrian. Lorpen horren atzean bi osagai nagusi daude: eskaintzen duen kalitate artistikoa batetik, eta kudeaketa ona bestetik. Kanpotik etorritako zuzendari eta bakarlariren iritzia batetik, nazioarteko grabaketak bestetik, eta Orkestrak atzerrira egindako irteerak izan dira nazioarteko ospe honen eragileak, Pandemiak bere ibilbidea baldintzatu zuen arte. Ez da garai xamurra nazioarteko bokazioa duen Orkestra batentzat. Gure egitekoa izango da, Kultura eta Hizkuntza Politika Saitetik, egitasmo hauek guztiak eta proiektuaren norabide hau finkatzen laguntzea.

Bestetik, aro berri bat abiatu du aurten Euskal Herriko Gazte Orkestrak. Musikari gazteek Euskadin musikak dituen baliabide guztiekin harremanak sendotzea, bereziki Musikene edo Kontserbatorioekin. Eredu berri honen xedea da, gazte musikariek arlo profesionalera jauzia eman aurretik, EGO hauentzat maila goreneko formakuntza gunea eta aukera izatea.

Legealdirako bide orriarekin aurrera jarraituz, gure hurrengo konpromisoa kultur ondarea babestea, eta balioan jartzea izango da. Kultura Plana 2019-2022 dokumentuan hirugarren azpisistema modura definitzen dugun bezala, Memoria Bizia eraiki nahi dugu, herri gisa, gure iraganaren memoria zaindu behar dugulako eta etorkizunean duen eragina aintzat hartu behar dugulako.

La Memoria viva, o el cuidado, la protección y la puesta en valor del patrimonio cultural tiene una estrecha relación con los compromisos y objetivos expuestos hasta ahora: con la creación y con la oferta. La creación de hoy será patrimonio mañana; el patrimonio forma una parte de nuestra oferta cultural; y de esa oferta y del disfrute de la misma se nutre el o la artista para seguir creando y enriqueciendo su obra. En definitiva, las políticas de protección y puesta en valor del patrimonio cultural, la Memoria viva, constituye el tercer engranaje de nuestro complejo y rico ecosistema cultural.

Siguiendo la línea iniciada en la legislatura pasada, un ámbito prioritario de actuación en esta materia es la referida a la actualización de la normativa y su desarrollo. El 19 de mayo de 2019 Gobierno y formaciones políticas logramos aprobar, casi con unanimidad, la Ley 6/2019 de Patrimonio Cultural Vasco. Un hito importante, que permitirá ordenar y regular de mejor manera nuestro patrimonio y que fija un marco necesario para iniciar la protección del patrimonio inmaterial. He de subrayar, además, que dentro de nuestra labor en el ámbito del patrimonio inmaterial adquirirá un peso importante la recuperación, puesta en valor y visibilización del legado de las mujeres.

Nuestro Departamento está inmerso en la elaboración de los cuatro Decretos que han de desarrollar la Ley 6/2019:

- el de creación del Consejo del Patrimonio Cultural de Euskadi,
- el de creación y regulación del Órgano Interinstitucional,
- el de regulación del Registro del Patrimonio Cultural de Euskadi
- y el de regulación del Registro de Patrimonio con Protección Básica.

En el mismo sentido, mantenemos nuestro objetivo de aprobar la Ley de Gestión Documental Integral y de Patrimonio Documental de Euskadi. Nos hemos fijado el objetivo de aprobarlo en Consejo de Gobierno a lo largo del primer semestre del año que viene, para su posterior tramitación en esta Cámara. Manifiesto hoy nuestro deseo de que esta Ley concite al menos el mismo grado de consenso que la Ley de Patrimonio. La disposición del Gobierno y de este Departamento para ello, será máxima. La recuperación y puesta en valor del patrimonio industrial conforma también un reto importante dentro de este ámbito. Euskadi cuenta con un importante patrimonio de carácter industrial, en todos los territorios y de diferentes épocas. Continuamos adelante y daremos un impulso definitivo al proyecto del nuevo Centro del Patrimonio Industrial de Euskadi, que se ubicará en La Orconera, en Barakaldo, que contará con un material de más de 2.000 piezas, actualmente catalogadas y almacenadas en el pabellón Konsoni. Queremos que este nuevo Centro sea una referencia local e internacional en materia de patrimonio industrial.

Paso a continuación a exponer nuestro compromiso con la innovación y la digitalización en la cultura.

Lehendik ere ate joka zetorren digitalizazio eta berrikuntza kultura arloan. Baina, gizartearen eta ekonomiaren beste hainbat alorretan bezalaxe, pandemiak areagotu egin du jautzia emateko premia. Mundu digitala behar bezala jorratu gabeko eremua da Euskadiko kultur sektorearentzat. Ingurune digitala kulturak inteligentziaz esploratu beharreko eta aukeraz beteriko mundu berri modura hartu behar dugu. Hori da gure ikuspegia.

Mundu digitalean ez bagaude, bizirauteko edo hazteko aukerak galtzen ari gara:

- izurritearen garai honetan ohiturak aldatu dituen publiko horri eusteko aukera,
- publiko berriekin konektatzekoa,
- enpresa edo artista modura ikasgai eta estimulu berrietatik ikastekoa,
- azpisektoreen arteko edota hauen eta bestelako sektore eta ofizioen arteko elkarlana eta konexio berriak lantzeko aukera,
- kudeaketari dagokionean lehiakorragoa izatekoa, gure eskaintza eta ondarea munduko plazan erakustekoa,
- eta abar luze bat.

Ingurune digitalean egoteak, aipatutako alor hauetan, eta beste hainbatetan hazten lagunduko digu. Gure aldetik sektoreari trantsizio digital hau egiten laguntzeko neurriak hartuko ditugu.

Presentzialtasunari edo aurrez-aurrekoari inolaz ere uko egin gabe, eredu mixto baterantzko bidea egin beharko dugu hainbat arlotan. Lehentasunezko lan-ildo gisa jarri dugu gure egitekoen artean. Eta baditugu proiektu zehatzak bide hori egiteko:

Legealdi honetan bultzada berezia eman nahi diegu Kultura eta Sormen Industriari. Hau ere, mundu berri bat da, baina oinarriak finkatu ditugu aurreko legealdian eta bagoaz aurrera. Uste dugu Euskadik badituela osagaiak Europan erreferentziazko lurraldea izateko KSlen esparruan, Euskadi Sortzailea markarekin. Kultur eta Sormen industrien alorra lehen aldiz azaltzen da Europako txostenetan sektore industrial estrategiko moduan. Euskadin ere aitortua dauka bere lekua Garapen Ekonomikorako estrategia nagusietan.

Alor hori sustatzeko, antolatze eta baliabide berriak emateko orain arte garatu ditugun politikak indar berria hartuko dute Basque District of Culture and Creativity izeneko harraminta baten bidez: Kultur eta Sormen Industrien Euskal Barrutiak baliabideak eskainiko dizkie enpresei, programak eta zerbitzuak, enpresa bezala indartu daitezen, antolakuntza hobetu dezaten, merkatuan hobeto koka daitezen, nazioartekotu daitezen.

Horrez gain, KSlen esparruak kulturari testuinguru zabalagoak eskaintzen dizkio, kultur industriak harreman oparagoak ehundu ditzan diseinuarekin, arkitekturarekin, bideo-jokoekin, esparru digitalarekin, hizkuntza-teknologikoekin, etab. Eta hortik, berrikuntza sustatzearen ikuspegitik beti ere, gainerako sektore

**INFORMAZIO GEHIAGO / MÁS INFORMACIÓN**

Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ



ekonomikoekin. Kulturaren profesionalizatzean sakontzeko xedean, kulturan diharduten enpresa eta antolakuntzak indartzea, sendotzea eta berrikuntzarako gaitzea ezinbestezkoa da.

Agerraldi honetan ezinbestean azpimarratu beharreko proiektuen artera dakargu baita ere Euskal Kulturaren Atari Digitala: Euskariana. Erronkaz beteriko herri-proiektu berritzaile honen oinarriak ere finkatuta ditugu:

- Proiektuaren kontzeptualizazioa,
- erakunde eta kultur eragileen arteko ko-gobernantza ereduaren definizioa,
- proiektua martxan jartzeko Sail barruko unitate edo egitura berria,
- plataforma teknologikoaren oinarriak,
- eta ataria bera edukiz hornitzeko funtsen digitalizazio prozesuak eta honetarako bidelagunak.

Urrats horiek guztiak eman ditugu aurreko urteetan, eta legealdi honetan gure konpromiso eta helburua da, Euskal Kulturaren Atari Digitala abian jartzea, herritarren eskura jartzea, erabilgarri egotea eta garatzen jarraitzea. Plataforma honetan batuko dira euskal kulturaren alor guztietako erreferentziak eta informazio anitzak.

Gure kultur sorkuntza eta ondarearen bilgune, informazio iturri eta erakusleaho digital nagusia izango da, eta oinarrizko lanabes bat ere bai, euskal kulturaren digitalizazioan eta ikusgarritasun digitalean. Liburutegi Nazional Digital baten eredu berritzailea da Euskariana, erakundeen arteko lankidetzan oinarritua, kultur ekipamenduekin eta kultur eragileekin batera garatuko dena.

Digitalizazioaren erronkarekin amaitzeko, lehentxeago aipatu dudana eLiburutegia garatzen jarraitzea izango da gure ekinbideetako bat. Itxialdian inoizko daturik onenak izan genituen: 27.889 mailegu apirilean bakarrik, hilabete normaletan baino lau aldiz gehiago. Orain, erronka, erabiltzaileen interesari eustea da, baita gehiago lortzea ere. Horretarako, bai liburu, baita soinu eta ikus-entzunezko edukien eta hezkuntza edukien eskaintza handituko dugu. Gainera, eLiburutegia Euskal Kulturaren Atari digitalarekin lotuko dugu, datuak bakarrik ez, edukiak ere eskaini ahal izateko, ez iraganekoak bakarrik, baizik eta egun-egungoak.

Orain arte, hitzaldi honetan zehar, hainbatetan aipatu ditut gainerako euskal erakundeak, eta hauekiko elkarrizketa eta elkarlana. Hauez gain, gure kultur sorkuntzan, eskaintzan eta ondarean, zuzen-zuzenean eragiten duen Espainiako Gobernuarekin ere elkarrizketa eta elkarlan ahalegin berdina egingo dugu. Harreman horrek izango du baina, gure aldetik, aldarrikapen kutsua ere. Izan ere, egunerokoan bi erakundeok kide garen proiektuen kudeaketaz harago, asko dira Espainiako Gobernuaren esku dauden gaiak. Batzuk jada gure eskuetan behar luketenak. Beste batzuk aldiz, euren eskumena izanik aldatzeko beharra ikusten dugunak: kultur arloko BEZa, kulturako profesionalen IAEak errealitateari egokitzea, Gizarte Segurantza alorrean kultur jardunaren berezitasunak aitortzea, etab. Nire sailburu ardua berri eta egun gutxira bidali nion gutuna Kultura ministroari bilera bat eskatuz, besteak beste, aipatutako gaiak jorratzeko.

Kulturaren atalari amaiera eman aurretik, gogoeta bat partekatu nahi dut zuokin.

Kulturak norbanakoen eta orohar gizartearen garapenean eta ongizatean duen eraginarekin bat gatoz denok.

Kulturak itxialdian jokatu duen papera gogora ekartzea besterik ez dago hori baieztatzeko: bidelaguna eta Covid-aren albo-kalteen kontrako sendagaia izan da gutako askorentzat.

Baina kulturaren balioak haratago doaz, eta anitzak dira, eta horietako bat da gure ekonomian, enpleguan eta aberastasunean duen pisua.

Edo berrikuntzaren arloan izan behar duen tokia.

Orkestra Euskal Institutuaren 2020ko Euskadiko Lehiakortasunaren txostenaren arabera, kultur sektoreak Autonomia Erkidegoko enpleguaren 1,7% ordezkatzen du. (15.051 langile), eta Barne Produktu Gordinari egiten dion ekarpena, 1.712 milioi eurokoa da.

Baina oraindik ez dugu lortu Kulturaren arloa taxutzea, eta aisialdia eta jokoarekin lotutako beste jardun batzuekin nahastuta ageri da.

Beharrezkoa ikusten dugu Kulturaren esparrua ongi taxutzea eta euskal ekonomiari egiten dion benetako ekarpena ezagutu eta ezagutaraztea.

Hala, kulturaren alor ekonomikoa aldarrikatzea eta defendatzea ere izango da gure konpromisoa, esate baterako, BERPIZTU Planaren bitartez. Eta alor hori balioan jarrita, Kulturak merezi duen eta dagokion aitortpena areagotzea, ahal dugun esparru guztietan, eta orokorrean, gizartearen begietara. Horretarako ezinbestekoa izango da hainbatetan aipatu dugun sektorearen profesionalizazioa eta lehiakortasuna areagotzea. Horretarako giltzarri izango dira aipatutako digitalizazioa eta berrikuntza, baita sektoreak eta profesioak modu eraginkorrean antolatzea eta koordinatzea ere, bai euren artean, baita erakundeekiko eta beste sektore produktiboekiko harremanetan ere.

Lortu behar dugu gure gizarteak ikustea eta baloratzea kulturak herri honen garapenari eta herritasunari egiten dion ekarpen izugarriaz gain, enpleguari eta barne produktu gordinari ere egiten dien ekarpena. Hori ere izango da lantalde honen konpromiso irmoetako bat.

## **EUSKARAREN ETA EUSKAL KULTURAREN NAZIORTEKO ZABALKUNDEA -ETXEPARE INSTITUTUA**

A lo largo de esta comparecencia he hecho reiterada mención a la internacionalización y a la proyección de nuestra cultura y nuestra lengua en el exterior, en el marco de Euskadi Basque Country - Estrategia de Internacionalización de Euskadi.

El Gobierno Vasco cuenta con un medio clave, estratégico, para avanzar en este cometido con plena dedicación y especialización: el Instituto Vasco Etxepare. Un órgano que este año 2020 cumple 10 años. Un aniversario que celebra la aportación que durante esta década Etxepare Institutua ha realizado a la proyección exterior de la cultura y al euskera.

10 urte hauetan lan oso ona eta fina egin du Etxepare Institutuak, euskara eta euskal kultura munduratzeko. Eusko Jaurlaritzak betitik izan duen konpromiso horri erantzuna emateko sortu zen orain 10 urte Etxepare Institutua. Gaur, hamarkada bat igarota, asko eta nabarmenak dira egindako aurrerapenak.

Gobernu Programan jaso bezala, gure Sailaren hurrengo konpromisoa euskararen eta euskal kulturaren nazioarteko presentzia indartzea da, ez soilik baina bai neurri handi batean, Etxepare Institutuaren bitartez. Pandemiak nabarmen eragin dio Etxeparearen jardunari eta abian dituen proiektu eta programei.

Baina egokitzen jakin eta asmatu du lantaldeak. Aurrerantzean ere, moduak moldatu beharra izango dugu egoeraren arabera, baina helburu eta ildo estrategikoak ongi finkatuak ditugu.

Honakoak dira:

- Intensificaremos los programas de enseñanza del euskera y la cultura vasca actualmente activos en diversas universidades de todo el mundo, tanto los 35 lectorados como las 10 cátedras que conforman nuestra red en la actualidad.



En estrecha coordinación con todas estas universidades, y gracias al compromiso del profesorado y del alumnado, hemos logrado, que la práctica totalidad de lectorados y cátedras prosigan con su actividad o que hayan iniciado el nuevo curso, lógicamente, la mayoría de forma telemática.

Ha supuesto un esfuerzo de adaptación, pero estamos cumpliendo nuestro objetivo.

Mientras dure la pandemia, será constante el desafío de mantener el interés del alumnado, y de atraer a nuevos alumnos y alumnas que sientan curiosidad y ganas de conocer nuestra cultura y nuestra lengua.

- Continuaremos impulsando el programa Euskara Munduan, de aprendizaje del euskera, implantado y consolidado en cerca de 80 Euskal Etxeak de todo el mundo.  
Este programa lectivo, que conlleva sus respectivos procesos de examinación, de barnetegis en Euskadi, etc. también, se enfrenta, debido al difícil contexto mundial, al reto de mantener los niveles de calidad adecuados de enseñanza y de consolidar y a poder ser incrementar, el número de alumnado.
- No desistiremos en apoyar a nuestros creadores y creadoras para que puedan seguir abriendo nuevos horizontes a la cultura vasca en el extranjero.  
Como este el último año, volveremos a revisar nuestras convocatorias para que nuestros agentes culturales puedan acogerse a las mismas a pesar de los condicionantes del contexto.  
Seguiremos explorando todos los resquicios a nuestro alcance para atenuar el golpe de las incesantes cancelaciones internacionales.  
Más aún: nos esforzaremos en estimular la contratación de nuestros y nuestras artistas, mediante un sistema de ayudas más ágil, que facilite la liquidez y permita reducir su incertidumbre.
- Seguiremos facilitando e impulsando, a través de las “Ventanas vascas - Euskal Leihoak”, la participación de artistas vascos y vascas en programaciones y festivales internacionales.  
En muchos casos están en plena adaptación a las respectivas restricciones de cada país.  
Sea, bien con aforos limitados, bien de forma telemática, nuestro empeño será garantizar, más que nunca, la presencia de los y las creadoras vascas en todos los foros que se organicen.  
En la misma línea, de manera coordinada entre el Departamento y Etxepare, impulsaremos con acciones de difusión por el Instituto, la presencia de nuestras industrias culturales en ferias y mercados internacionales.
- En cuarto lugar, en nuestro objetivo de organizar programas bilaterales de intercambio cultural con países y regiones estratégicos para Euskadi, nos centraremos en hacer posible la celebración del intercambio con Quebec, inicialmente previsto para este 2020 y 2021.  
Hemos tenido que adecuar nuestros planes y posponerlo al 2021-2022.  
Preveamos que no será una edición fácil, pero haremos todo lo que esté en nuestra mano, para que tenga lugar.  
El éxito que cosechó el año pasado la edición “Scotland Goes Basque”, nos anima a hacer el esfuerzo para que escritores y escritoras, músicos y músicas, grupos de danza, de teatro, etc. tengan la oportunidad de mostrarse en Quebec, y que agentes culturales de allí, vengán aquí a conocer in situ nuestra cultura.
- Jarraipena emango diogu baita ere, Zabal egitasmoari. Orain urte bete jarri genuen abian. Hein batean, nazioarteko arte komisarioak Euskadira ekartzean datza hemengo sortzaileak ezagutu ditzaten, eta munduan zehar egiten diren biurtekoetan eta goi mailako arte programazioetan gure sortzaileei atek zabaltzeko helburua du.  
Eredu hori, egokitzapenekin, beste kultur esparru batzuetara ere hedatu nahi dugu, euskaraz idatzitako literaturaren nazioartekotzeari arreta berezia eskainiz.

- Eta azkenik, Etxepare Euskal Institutuaren zeregin garrantzitsu bat ere azpimarratu nahi dugu. Izan ere, euskarari, kulturari eta sortzaileei atek zabaltzetik haratago, Institutua bera kultur diplomaziarako tresna bat da, giltzarri da munduko beste hizkuntza eta kultura institutuekiko eta erakundeekiko harremanetan, nazioarteko foro eta elkarrizketa guneetara Euskadiren ahotsa eramanez, eta gure kultura eta hizkuntza ikusaraziz.

Kulturaren eta nazioartekotzearen arloak jorratuta, Hizkuntza Politikari helduko diogu datozen minutuetan:

## HIZKUNTZA POLITIKA

Euskararen ezagutzan eta erabileran aurrera egitea Herri-helburua da Eusko Jaurlaritzarentzat legealdi honetan ere. Hala jaso dugu Gobernu Programan. Horrekin goi mailako konpromisoa hartzen du Gobernuak bere osotasunean eta sail guztien jarduna igarotzen du euskararen normalizazioak behar duen zeharlerrotasuna barneratuz. Horren isla izango da legealdi honetako Euskararen Agenda Estrategikoa. Jada lantzen diharduguna.

Bestetik legealdi honetan egokituko zaigu Euskara Sustatzeko Ekintza Planen dokumentu estrategikoa berritzea. Indarrean dagoenak, 2012an onartutakoak 10 urteko markoa eta horizontea marraztu dizkigu. 2022an, beraz, onartu beharko dugu marko berria. Honek, Herri gisa hizkuntza politikari eta euskararen normalizazioari dagokionean epe ertain eta luzeko oinarriak finkatuko ditu. Izan ere, euskararen erronkei ezin die Jaurlaritzak soilik erantzun; gizarte osoaren bultzada behar du: Euskal Herriko gainontzeko herri-erakundeen eta herritarren ordezkariera, euskalgintzarena, norbanakoena. Denon hauspoa behar du euskarak erabateko normalizaziorantz urratsak eman nahi baditugu. Eta nahi dugu. Horregatik, hori izan da gure printzipio nagusia: elkarlana, auzolana, denon lana. Printzipio hori egon da eta egongo da legealdi honetan ere gure jardunaren oinarrian.

Euskarak helmuga partekatzen dugunon lankidetzak behar du. Gobernua garen heinean, ahalegin berezia egiteko prest gaude. Denok ikusi dugu ahalegin horrek merezi duela, eta ahaleginik gabe, euskara bera dela galtzaile bakarra. Zein da helmuga baina? Eta zein bide hartuko dugu bertara iristeko? Euskararen eta gaztelaniaren arteko desorekarik gabeko gizartea irudikatzen dugu guk, non haur, gazte zein helduek normaltasunez ulertu, jakin, eta erabiltzen ahal izango dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak, edozein eremutan edo unetan. Agerikoa da hori ez dela egun euskal gizartearen errealitatea, ez eta egun batetik bestera lortuko duguna ere. Euskararen normalizazio hori ez dugu egun batetik bestera lortuko, baina egunero dugu aukera aurrera-urrats garrantzitsuak emateko. Hizkuntza Politika eraginkor batek epe luzeko estrategiak, eta batipat, Kostantzia behar ditu. Hizkuntza ezagutzak eta herritarren hizkuntza ohiturak urteetako lanketa eta jarraipenarekin alda daitezke. Ez dago beste modurik. Horregatik da garrantzitsua epe luzeko estrategia horietan adostasun zabalak bilatzea. Zentzu horretan Hizkuntza Politikak hainbat mugarri izan ditu demokrazian, eta lehenago ere bai noski:

- Euskara Batuaren sorrera 1968an Arantzazun,
- euskararen ofizialtasuna 1979an Gernikako Estatutuaren bitartez,
- Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legea 1982an;
- urte horretan bertan EiT布伦 sorrera
- edota Euskaldunon Egunkariarena 1990ean, baita beste hainbat euskarazko hedabide ere;
- Hezkuntza arloko ituna 1992an;
- Administrazioetan euskara normalizatzeko dekretuak, arauak eta horien eguneraketak;
- HABEren sorrera 1983an eta euskaltegien erregulazio eta koordinazioa;
- Korrika; Bai Euskarari; Kontseiluaren sorrera, Topagunearena... denboran gertuxeago,
- Euskaltzaindiaren eta Eusko Ikaskuntzaren mendeurrena,
- Euskaraldia edota Hiruko Ituna.

Hauek eta beste mugarri askok osa dezakete zerrenda luzea. Guztietan, gizarte osoaren parte-hartzea ikus daiteke: erakundeak, alderdi politikoak, euskalgintza eta norbanakoak. Hauekin eta beste hainbat mugarrirekin, denak ehunduz, eta euskal gizartearen zati handi baten babesarekin, nahiz eta euskararik jakin ez, eraiki dugu euskal gizartearen egungo errealtate soziolinguistikoa. Batzuentzat arrakastatsua, besteentzat balekoa, juxtukoa beste batzuentzat. Porrota ere bai, gutxi batzuentzat. Baikor zein ezkor, denona da meritua. Eta ez da meritu makala, nazioartean Hizkuntza gutxituen normalkuntza prozesuen erreferentea baita gure esperientzia.

Beraz, gu baikorren aldean gaude, bai iraganeko balantzeari dagokionean, baita etorkizuneko erronkei dagokienean ere. Izan ere, ez beti, baina hein handi batean, adostasun eta kontsentsu zabaletan oinarritutako historia du euskarak gurean. Gizarte berdinzale bat eraikitzeke jarrera izan dugu: berdinagoa hizkuntzen kudeaketan eta berdinagoa gai sozial eta ekonomikoetan, hain zuzen. Ezpiritu hori hartu nahi dugu erreferentziatzat etorkizuneko erronketarako ere. Erronkak ez dira makalak jarraian ikusiko dugunez. Baina bide orria ongi finkatua dugu. Eta hiru konpromiso nagusitan oinarritzen da:

- Batetik, euskararen ezagutza eta erabilera areagotzea.
- Bigarrenik hizkuntza eskubideak bermatzea.
- Eta hirugarrenik, euskararen lurralde guztietan erakunde arteko lankidetzak indartzea euskararen geografia osoan gure hizkuntzak aurrera egin dezan.

Konpromiso guztiak zeharkatzen ditu erronka zabal batek: euskararen prestigio soziala hobetzeko diskurtsoen eraikuntzak eta garapenak. Zerekin lotzen dugu euskara? Gutako bakoitzari eta gizarteari orohar zer datorkigu burura euskara aipatzean? Nola egin erakargarri euskara eta euskal unibertsoa? Nola aktibatu gizartea?

Orain dela 30-40 urteko euskal gizartea eta egungoa ezberdinak dira oso eta euskarak irabazteko dituen eremuak ere aldatzen doaz. Eremu horietara eraman behar dugu euskara, modu baikorrean, naturalean, eraikitzailean, kohesionatzailean. Gizarteak euskara lagun eta bidelagun sentitu behar du. Erakundeon arteko lankidetzan sakonduz, eta guztion artean, gai izan behar gara diskurtso sozial positibo horiek eraikitzeke.

Horretarako ezinbestekoa izango da, hizkuntza gutxituen ezagutza eta erabilerari dagokionez gizarte-eremu desberdinen analisisa eta ikerketan sakontzea, Euskal Herriko inkesta soziolinguistikoa eta Euskararen Adierazle Sistema elikatzen jarraitzea, eta BIG DATA moduko baliabide berrien bitartez datuen ustiatze berriak egitea.

Como decía, nuestro primer compromiso se centra en incrementar el grado de conocimiento y uso del euskera entre la población. Según los estudios de sociolingüística, en los últimos 40 años 300.000 personas han aprendido euskera en Euskadi, y de todas ellas, dos tercios, han adquirido la lengua gracias al sistema educativo.

De acuerdo con la última Encuesta Sociolingüística la tasa de conocimiento en la población menor de 25 años supera el 80%. Sin embargo, uno de cada tres jóvenes de esa edad tiene el euskera como primera lengua (el 20,5% únicamente el euskera y otro 13,1% tanto el euskera como el castellano). Ello nos da una pista de cuán importante es el sistema educativo, y de la importancia de acertar con el modelo lingüístico que emanará de la nueva Ley de Educación. No es competencia de nuestro Departamento, es obvio, pero el trabajo compartido entre ambos equipos en este ámbito es ya un hecho y a ello dedicaremos una parte de nuestro esfuerzo. Sí es nuestro cometido directo el ámbito de la enseñanza y aprendizaje del euskera entre personas adultas, a través de HABE y en estrecha coordinación con la red de euskaltegis de la CAV.

Actualmente, según datos de matriculación del presente curso 20-21, tenemos en los euskaltegis, tanto públicos como privados, 24.731 estudiantes matriculados. Esto es un 9,8% menos que en octubre del año pasado. Un descenso menor de lo esperado. Calificamos, por tanto, este dato como muy positivo, habida cuenta de las grandes dificultades y obstáculos provocados por el Covid en los últimos meses.

A través del diálogo permanente y estrecha colaboración con la red de euskaltegis, ya en junio se retomó la actividad presencial y mixta, y se ha podido iniciar el curso con los ajustes precisos de aforo y combinación de formatos presencial-telemático. Hemos revisado los criterios y ratios de financiación, para que los euskaltegis no vean mermada su financiación a pesar del descenso en el número de alumnado.

Creemos, además, que este esfuerzo va a contribuir a mejorar y adecuar la oferta actual a las necesidades de conciliación corresponsable de una parte importante del alumnado, que ya veníamos detectando con anterioridad a la pandemia.

En este difícil contexto, queremos agradecer la disposición que los euskaltegis han mostrado para, entre todos, hallar una fórmula adecuada sin perjudicar la continuidad de su actividad, la calidad de la enseñanza, y, en definitiva, los procesos de aprendizaje y acreditación del alumnado.

En materia de financiación, nos hemos propuesto incrementar progresivamente a lo largo de la legislatura los fondos destinados para la financiación de los euskaltegis, con el fin concreto de mejorar las condiciones laborales del profesorado de la red concertada.

Esta medida permitirá dotar de mayor estabilidad a los profesores de los euskaltegis, lo que repercutirá directamente en la calidad de la enseñanza.

Por otra parte, en febrero de este año, alcanzábamos un acuerdo interinstitucional (Gobierno Vasco, Diputaciones Forales y Eudel) para garantizar la gratuidad del aprendizaje del euskera hasta nivel B2 acreditado. Así, todos los alumnos y alumnas que a partir de este curso acrediten dicho nivel, recuperarán el importe de matriculación. En esta legislatura hemos querido ir más allá, atendiendo algunas de las cuestiones planteadas en este Parlamento. Así, tal y como hemos recogido en nuestro Programa de Gobierno, de manera progresiva iremos también implantando la gratuidad de la matriculación para el alumnado de entre 16 y 30 años que acredite el nivel C1.

Consideramos ésta una medida muy importante para contribuir a que jóvenes en fase de formación, adquieran un nivel más elevado que les capacite para desarrollar su carrera profesional también en euskera. Para la consecución del objetivo mencionado en esta legislatura, e iniciando este mismo curso académico 2020-2021 vamos a modificar la gestión de las ayudas económicas destinadas al alumnado adulto compartiendo dicha labor con los euskaltegis, ya que serán los propios centros los que determinarán, en función del Proyecto Curricular del Centro, los alumnos y alumnas que superen los niveles del HEOC (A1, A2, B1 y B2). Por último, HABE procederá a conceder la ayuda a dichos alumnos y alumnas siempre y cuando se cumplan las demás condiciones exigidas.

En lo que se refiere a la acreditación de los niveles de euskera se establecerá una colaboración mixta de euskaltegis y HABE a través de la cual determinadas destrezas serán evaluadas por los euskaltegis y otras destrezas lingüísticas, por medio de evaluación externa, serán realizadas por HABE.

Por último, en materia de aprendizaje, cabe destacar que reforzaremos, en colaboración con Lanbide, los programas de aprendizaje y la elaboración de materiales dirigidos específicamente a la población migrante, sean jóvenes como adultos, con el fin de fomentar su desarrollo escolar adecuado, su integración social, su formación profesional y laboral, y su incorporación al mercado de trabajo.

Erabilera areagotzeko konpromisora etorrita, Euskararen Inkesta Soziolinguistikoaren azken datuei erreparatuta, gazteak dira euskara gehien erabiltzen dutenak, eta gora doa erabilera hori adin-talde honetan.

Adibidez, 1991n (lehen inkesta egin zen urtean), 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean, %12,4k erabiltzen zuten euskara gaztelania beste edo gehiago; gaur egun, kopuru hori % 29,5koa da. Haur, gazte zein heldu, aipatu bezala, eremu berriak irabazi behar ditugu euskararentzat, bai esparru formalean, zein ez-formalean. Eremu horiek dira, bereziki:

- lan mundua (publikoa zein pribatua)
- aisialdia:
- gizarte-hedabideak,
- ingurune digitala eta hizkuntza teknologiak,
- kirol jarduera,
- familia,
- hezkuntza-sistema
- edota kultur sorkuntza eta eskaintza.

Nola iritsi eremu horietara? Horietako bakoitzean eragiteko, programa eta proiektu bereziak ditugu martxan, horiek indartzen jarraituko dugu zalantzarik gabe. Eta bidean sortuko diren proiektu berriak ere aktibatuko ditugu. Modu zeharkakoan eta gizarte osoari zuzendutako programa izarra ere indartuko dugu aurrean: Euskaraldia alegia.

2018ko lehenengo edizio haren arrakastatik abiatuta, aurrean, berriro ere Euskaraldia martxan da, eta bere erabateko hedapena azaroaren 20tik abenduaren 4ra izango da. Aktibazio soziala helburu duen ariketa kolektibo honetan ere, denon parte-hartzea eta konpromisoa behar dira, are gehiago, pandemiak bidean jarri dizkigun oztupoak gainditu nahi baditugu. Uneotako datuen arabera 25 mila Arigunetik gora sortu dira jada eta 421 udalerritan sortu dira Euskaraldia Batzordeak. Norbanakoen izen-emate kopurua ere, uste dugu arrakasta bat izango dela. Esan dezakegu, beraz, abiapuntua oso ona dela.

Edizio honi garrantzia berezia ematen diogu Gobernutik, ez testuinguruagatik soilik, baizik eta bereziki, lehenengo edizioaren txinparta egonkortu eta epe luzeko ekimen bezala finkatzeko osagaiak dituen neurtzeko baliatu behar dugulako.

Arreta berezia eskaini nahi diegu gaurkoan bi eremuri zehatzi: Eremu sozioekonomikoa eta ingurune digitala.

Euskarak lan hizkuntza izateko jauzia egiteke dauka oraindik. Esparru publikoan, administrazioan alegia, pixkanaka lan-hizkuntza gisa lekua irabazten joan den bezala, esparru pribatuan bide luzea dugu egiteko: industria, merkataritza, ostalaritza...Eremu horietaz ari gara.

Iaz, 2019ko abenduan onartu genuen Euskara Eremu Sozioekonomikoan Normalizatzeko 2020-2023 Plan Estrategikoa. Pandemia medio ezin izan ditugu bere hasierako epeak bete, baina dena dela, planari lotutako hainbat ekimen aurreratu ditugu 2020 honetan, hauek ere erakunde eta eragileen arteko lankidetzari esker. Besteak beste:

- Finantza entitateen foro berria sortu dugu.
- Araban, LANABES eta PRAKTIKA KOMUNITATEA jarri ditugu martxan.
- Gipuzkoan, EUSKARAZ TALENTUA GARA programa abiatu dugu LANBIDE HEZIKETAren bidez lan-praktikak euskaraz egiteko.
- Udazken honetan abiatuko den Merkataritza kanpaina prestatu dugu, Gasteiz, Donostia eta Bilbon, eta Oarsoaldean eta Durangaldean garatuko dena.
- INDEUS plataformaren jarraipena egin dugu.
- JAGON jardunaldiak egin ditugu, kontsumitzaile eta erabiltzaileen dekretuaren azterketa eginez.

- Euskara lanean sustatzeko diskurtsoen azterketa eginez bi ikerketa egin dira, eta hirugarren bat merkataritza eta ostalaritzan euskara sustatzeko baliabideak eta praktika onei buruzkoa.

Hainbat ekimen martxan ditugu beraz, eta legealdian osoan zehar indarrez garatuko dugun Plana izango da, Jaurlaritzako beste hainbat sailekin elkarlanean, baita lankidetzan gabiltzan gainerako erakunde publiko zein pribatuekin ere..

Bestetik, ingurune digitalari dagokionean, lantzen ari gara dagoeneko Hizkuntza Teknologia Plana, legealdi honetan onartu eta indar osoz garatzeko. Izan ere, euskarak ingurune digitalean ezinbestean egon behar du:

- bai aisiari lotutako edukietan (ikus-entzunezkoak eta irakurzaletasuna esaterako),
- bai hezkuntzari lotutakoetan (wikipedia eta txikipedia),
- bai teknologietan (itzultzaile neuronalak, azpidatzi automatikoak, testua-ahots bihurtzeko gailuak...).

Gizarteak geroz eta gehiago darabiltzan tresna hauetan guztietan euskara lehen mailako hizkuntzen artean kokatzeko erronka dugu eskuartean. Adibidez, pentsa ze arrakasta izan duen Egunean Behin bezalako aplikazio batek gure gazteen artean, euskaraz eta euskaratik sortua.

Pentsa ze lagungarria den irakasle eta ikasleentzat wikipedia bezalako tresna bat euskaraz, eta zein kaltegarria litzatekeen euskararentzat eta euskal ikasleentzat, tresna hori euskara ez den beste hizkuntza batzuetan erabili beharra. Adibide soil batzuk dira. Mundu horretan, euskal kulturak bezala, euskarak eta euskaldunok, dena dugu irabazteko.

Bigarren konpromiso zehatza, hizkuntza eskubideak erabat errespetatzea eta errespetaraztea da, eta normalizatutako hizkuntza-bizikidetzak baterantz aurrera egitea. Konpromiso horretan, hainbat dira abian ditugun ekinbideak, legealdian zehar jarraipena eman eta indartuko ditugunak. Besteak beste:

1. Administrazio publikoetan Euskara Normalizatzeko VI. Plana, indarrean dagoena burutzea eta ebaluatzea, eta 2023an VII. Plana onartzea, beste bost urterako.  
Planak bi helburu nagusi izango ditu: batetik, administrazioarekiko harremanetan herritarrek dituzten hizkuntza-eskubideak bermatzeko markoa eta neurriak eguneratzea, beti ere, herritarrek harreman horretarako egiten duen hizkuntza-hautua errespetatuz.  
Eta bestetik, sektore publikoan euskara lan-hizkuntza modura indartzea, euskararen erabileran normalizazioa areagotuz.
2. Administrazio publikoetan euskararen erabilera sustatzeko helburu horretan, ekimen zehatzetako bat izango da, hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua berritzea.  
Dagoeneko, Legebiltzar honek dakien moduan, aurreko legealdian hasi ginen barne izapidearekin eta legealdi honetan onartu eta sartuko da indarrean.
3. Euskararen normalizazio neurriak sozietate publikoetara hedatu nahi ditugu, eta ondorioz, hauentzako hizkuntza normalizazio plana abiaraziko dugu.
4. Eta bukatzeko, Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria berrikusi eta bere eraginkortasuna areagotuko dugu. Elebide zerbitzuaren bitartez herritarren hizkuntza-eskubideen betetze mailaren jarraipena egiten jarraituko dugu, eta ildo horretatik, kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideen kasuan, eskubide hauek bermatzeko sektoreko eragileekin adostasunak landu eta neurriak hartuko ditugu.

Azaldu dizkizuegun konpromiso eta egitasmo zehatzez gain, hizkuntza politikaren ezaugarri garrantzitsu bati ere erreparatu nahi diot: zeharlerrotasuna hain zuzen. Hizkuntza politikan zeharkako politikak garatzen ditugun heinean, gainerako zeharkako politikekiko lankidetzan ikasi eta aberats gintezkeela argi daukagu. Ingurune digitala aipatu dugu lehen, gazteak ere bai; eta ez dut ahaztu gabe utzi nahi genero berdintasunarekiko dugun



atxikimendua. Bi politikek baditugu antzekotasunak, baditugu narrazio eta jardunbide berdin edota eredugarriak. Honetan ere elkar elikatuz aurrerapauso handiak egin ditzakegula argi dugu.

Hala, Emakunde eta Hizkuntza Politika Sailaren arteko bitariko batzordetik sortu diren ekimenak (jardunaldiak, Berdintzen ikerketa bekak, berdintasun eta hizkuntza politiken azterketa...) etorkizuneko fruituen zuztar biziak dira, ziur.

Bukatzeko, nire hitzaldi osoan hainbatetan errepikatu dudan lankidetzari erreferentzia eginez emango diot amaiera Euskararen atalari. Gobernantza zabala eta partekatua eskatzen du euskarak. Partekatua, erakundeon lankidetzaren zentzuan; partekatua, alderdi politikoen adostasunez; partekatua, euskalgintzarekiko; eta partekatua gizarte osoarekin, elkarri eskua emanda egin beharreko bidea delako euskararena. Baditugu lanerako espazio egokiak eta errespetuz eta konpromisoz eraikitako zubiak horretarako:

- Euskararen Aholku Batzordea (laster berrituko duguna) eta HAKOBA.
  - 2017an adostu eta sortutako Hiruko Ituna, Euskal Herriko erakunde arteko lankidetza indartzea helburu duena.
  - Udal mailan Eudelekin, eta bereziki UEMArekin dugun lankidetza esparrua, eta horren baitan Arnasa Gara bezalako ekimenak, arnasmune deitzen diegun herriekin lankidetzan.
  - Estatuko, Europako eta nazioarteko beste hizkuntza gutxitudunekiko harremanak eta lankidetza hitzarmen eta eremuak.
- Hala nola, Unesco Etxea eta Garabiderek lankidetzak, HIGA izeneko eta mota honetako egitasmoetan dugun inplikazioa (hizkuntza gutxitudun gazteen topaketak direnak) edota NPLD (Network to Promote Linguistic Diversity).

Espazio hauek elikatuz, biziberrituz eta dinamizatuz lan egingo dugu euskarak guztion ahalegina eta bultzada behar baititu. Talde hau osatzen dugunok, gogotsu eta indarberrituta ekin diogu lanari, datozen lau urtetarako eta epe luzeagorako euskarak dituen erronkei erantzuteko konpromiso irmoarekin.

## EITB

Paso a continuación a exponer las líneas estratégicas y principales retos a los que de manera coordinada y compartida con el Gobierno Vasco, tendrá que hacer frente Euskal Irrati Telebista, en su condición de ente del sector público en la recién iniciada legislatura y que hemos recogido en el compromiso 117 del Programa de Gobierno, y que tendrán que concretarse en un nuevo Contrato Programa que aprobaremos en 2021.

EiTBren gizarte-hedabide publiko izaeragatik, zentzuzkoa denez, Gobernu honek erakunde honen lanerako eta erabakiak hartzeko autonomia errespetatzen du.

Legebiltzar honetan ere bere gaineko kontrola ezartzen duen Batzorde propio bat dago, eta bertan ematen ditu EiTBren zuzendaritzak beharrezko ikusten dituen edo legebiltzar-taldean partetik eskatzen zaizkion azalpenak.

Kultura eta Hizkuntza Politika sailari dagokionez beraz, soilik sektore publikoko erakunde den heinean, eta bere sorrera legean ezarritako eginkizunak betetzen dituela bermatzeko konpromisoa hartzen dugu Gobernu Programan. Horrela ba, funtsean, konpromiso hori da EiTBren zerbitzu publikoaren izaera mantentzea eta bermatzea, eta komunikazio pluralerako eta hizkuntzaren normalizaziorako bitartekoa izatea. Norabide horretan, EiTBk erreferentzia izaten jarraitu behar du gizarte osoarentzat, lidergo eta prestigioari eutsiz eta handituz. Hau ez da erraza hedabideen eta bereziki ikus-entzunezkoen sektorean, lehia hain bortitzeko sektorea izaki. Eta are zailagoa da, zerbitzu publiko egoki, orekatu eta anitza eskaintzea eta euskararen normalizazioa sustatzea direnean zure egitekoak.

40 urte betetzear dagoen honetan, EITBk berak dituen erreforma premia propioei eta sektore horretan ongi lehiatzeko gaineratzen zaizkion eraldaketa beharrei, biei ala biei erantzun beharko die EITBk. Dakizuenez, ia zortzi urteren ondoren Maite Iturbek zuzendari nagusi izateari utziko dio. Nire esker ona adierazi nahi diot berari ere, bere dedikazioagatik eta konpromisoagatik. Bihar bertan, aldi berri bati hasiera emanez, Eusko Legebiltzar honek Andoni Aldekoaren izendapen proposamena onetsiko du, eta berak hartuko du EITBren gidaritza zuzendari nagusi modura.

## JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA

Jarduera fisikoaren eta kirolaren atala jorratuko dugu jarraian.

Hemos estructurado nuestra hoja de ruta en materia de Actividad Física y Deporte en cuatro compromisos concretos que desplegaremos con una importante serie de iniciativas.

En primer lugar, queremos situar Euskadi entre las sociedades más activas de Europa. El confinamiento que atravesamos en primavera pasada, o la actual situación de restricciones sociales- a su vez necesarias-, ponen de manifiesto, más si cabe, la contribución que la práctica de la actividad física y el deporte realiza al bienestar de la sociedad, o mejor dicho, el perjuicio que provoca la inactividad. Las personas necesitan sentirse activas, y practicar deporte. Y las autoridades sanitarias nos recomendaban mantener mínimamente nuestra forma física a pesar del confinamiento, conscientes de su aportación a la salud física y mental.

Estas lecciones, que no son nuevas, pero sí se han visto reforzadas por las consecuencias de la pandemia, nos reafirman en nuestro compromiso de situar la sociedad vasca como una de las más activas a nivel europeo, fomentando la práctica de la actividad física y los hábitos de vida saludable.

En esa línea, en Euskadi hemos implantado en los últimos años estrategias e instrumentos efectivos que seguiremos reforzando en esta legislatura: me refiero, por ejemplo, a la tarjeta única deportiva, cuyo modelo queremos extender a todo Euskadi.

Este sistema permite a las y los usuarios, hacer uso de las instalaciones deportivas públicas de cualquier municipio adscrito a esta red. Por otro lado, en colaboración con el Departamento de Salud, seguiremos potenciando el programa Mugiment, cuyo objetivo es fomentar la práctica deportiva y una vida saludable. Nos vamos a centrar, de manera especial, en jóvenes y personas mayores. Este exitoso programa lo desarrollamos entre el Departamento de Salud y la Dirección de Actividad Física y Deporte, en colaboración con los Ayuntamientos que se suman a la red Mugiment. Todo el mundo es consciente de que el Departamento de Salud tiene otra serie de prioridades de carácter más inmediato. No obstante, mantenemos el programa y a medida que la situación se normalice según avance la legislatura, iremos fortaleciéndolo.

Kirol arloko bigarren konpromisoa euskal kirol-sistema etorkizuneko erronketara egokitzea eta bere antolaketa hobetzea da, eta honi lotuta, jarduera fisikoaren eta kirolaren sektorea berpiztea, Covid-19aren ondorioek gogor astindu baitute. Askotan errepikatu dut agerraldi honetan elkarlanaren balioa. Konpromiso honetan ere ezinbesteko osagaia izango da hori. Izan ere, proposatzen ditugun egitasmoak sektore eta gainontzeko euskal erakundeekin jorratu beharrekoak dira. Horrela ba, uztartu egingo ditugu egun eta datozen hilabeteetan premiazkoak izan daitezkeen neurriak, eta epe-luzekoak. Premiazkoei dagokienean:

- Izurriaren aurrean sortzen diren beharrei erantzuteko zerbitzu teknikoa mantendu eta indartuko dugu.
- Kirol-Eskolaren funtzioa indartuko dugu, teknologia berriak erabiliz eskaintza malgu, anitz eta aitzindaria emateko.
- Digitalizazioa, ikerketa eta garapen eta berrikuntza proiektuak lagunduko ditugu.

Epe ertain-luzekoei dagokienean berriz:

- Lehenik eta behin, euskal federazio-sistema berrantolatu beharra ikusten dugu, eta horretarako federazioekin ez ezik, Foru Aldundiekin jardungo dugu elkarlanean.  
Federazio askok eta anitzek osatzen dute gure kirol errealitatea.  
Gure nahia, hauen egituraketa hobetu eta eraginkortasuna irabaztea da, baita hauetan errelebo egokiak erraztea ere.  
Federazioak eraberritzeak, kirol praktika horiei mesede egingo diela ziur gaude.
- Bigarrenik, hiru lege berri proposatzen ditugu gure Programan:
  - Kirol arloko Lanbideetan Sartzeari eta Jarduteari buruzko Legea.  
Aurreko legealdian onartzear geratu zitzaigun lege hau.  
Gure asmoa eta nahia da, Ganbera honetan lortutako adostasunak berrestea denon aldetik, eta hau lehenbailehen egitea, sektoreari zor diogun lege berri hau indarrean sar dadin ahal bezain pronto, eta berau ahalik eta azkarren garatu dezagun.
  - Jarduera fisikoaren eta kirolaren lege berria.  
Egun indarrean duguna 1998ko Kirol legea da.  
Orditik hona Euskadiko kirol esparrua zeharo aldatu da, bai kirol federazioei dagokienean, bai klubei dagokienean, bai azpiegitura eta hauen kudeatzaileei dagokienean, bai kirol enpresa eta kirol-turismo enpresei dagokienean...  
Errealitate berri honi erantzungo dion lege berria behar dugu Euskadin.  
Honetan ere, Legebiltzar honekin elkarlanerako prestasuna agertzen dugu.
  - Eta azkenik, Dopinaren aurkako Legea eguneratzea egokituko zaigu, Dopinaren kontrako Munduko Agentziaren kode berrietara egokitzeko.  
Dopinaz ari garen honetan, ez dut azpimarratu gabe utzi nahi, Dopinaren kontrako Euskal Agentziak egiten duen lan ona.  
Zentzu honetan, gure konpromisoa da agentziaren erreferentzialtasuna indartzea mundu mailan, eta horretarako nazioarteko agentziaren aitortza eskuratzeko ahalegina areagotuko dugu.

Hirugarren konpromisoa kirolak gizarteari egin diezazkiokeen bestelako ekarpenetan zentratzen da. Alegia, jarduera fisikoa eta kirola genero berdintasunean, gizarte kohesioan eta integrazioan eta euskararen sustapenean eragin dezakeela uste dugu, eta ikuspegi horrekin jardungo dugu. Alde batetik, kirol arloan emakumeen parte-hartzea sustatzeko eta ikusarazteko programak indartuko ditugu. Hautzarroan mutil zein neskek kirolerako joera berdintsua badute ere, adinean aurrera egin ahala emakume gazteek kirol jarduera uztea ohikoagoa da mutilen artean baino. Joera hori geldiarazi behar dugu, emakume gazteen artean kirol jarduera sustatuz, batetik, luzera begira osasunean duen eragin positiboagatik noski, eta bestetik, kirol ibilbide emankor bati uko ez egitearren. Bigarren hau, hain zuzen, estuki lotua dago emakumeek sarri askotan kirol jarduera profesional edo goi mailako bat garatzeko duten zailtasunekin edo desberdintasun egoerekin. Zentzu horretan ere, gure egitekoa izango da berdintasuna sustatzea kirol maila guztietan, eta emakumeen presentzia eta parte-hartzea sustatzea kirol arloko erabakitze eta ordezkatzeko guneetan.

Helburu honi bultzada berezia emateko, gure egitasmoetako bat da, legealdian zehar Emakumeen kirol politiken arloan Europa mailan erreferentzia izango den Zentro aurreratu bat abian jartzea, politika horiek aztertu, eragina neurtu, hobekuntzak proposatu eta finean, erakunde, sektore eta orohar gizarteari begira sustapen lan hori egiteko.

Bigarrenik, kirol inklusiboa eta egokitua laguntzen jarraituko dugu, ezintasunen bat eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen jarduera fisikoa eta kirola egiteko aukera izan dezaten.

Eta hirugarrenik, kirola eta jarduera fisikoa euskararekin zein uztargarriak diren ikusi dugu aurreko legealdian, Euskal Kirolari programa martxan jarri dugunean. Egitasmo honi jarraipena emango diogu eta indartu egingo dugu. Era berean, kirolariak euskaraz jarduteko dituzten oztopoek ez dituzte euren hizkuntza-eskubideak bermatzen. Egoera horiek zuzendu daitezzen ere lan egingo dugu.

Por último, nuestro cuarto compromiso en el ámbito deportivo es el referido al potencial del deporte como instrumento para la internacionalización de Euskadi. Por una parte, y en la medida en que el Covid nos lo permita, intensificaremos nuestro esfuerzo en atraer e Euskadi eventos y competiciones deportivas internacionales de primer nivel. Por otro lado, reforzaremos la actividad de Basque Team Fundazioa, como herramienta de referencia para nuestros deportistas de élite y su participación y proyección en las competiciones internacionales. En este sentido, el 2021 puede ser un año clave de cara a los Juegos Olímpicos y Paraolímpicos de Tokyo, pospuestos por la pandemia. Si finalmente pueden celebrarse, Euskadi allí estará, mostrando su máximo nivel y compitiendo en lo más alto. Nuestros deportistas, hombres y mujeres de todas las disciplinas deportivas, contarán con el apoyo del Gobierno Vasco, de Basque Team, y de toda la sociedad vasca.

En tercer lugar, seguiremos apoyando a nuestras selecciones vascas, en la reivindicación compartida de lograr su oficialidad y su actividad normalizada en el plano internacional.

Y en cuarto y último lugar, dedicaremos una atención especial a apoyar a nuestros deportes autóctonos, como son la pelota, las herri-kirolak y el remo.

También en este compromiso de desplegar el potencial del deporte como medio de internacionalización de Euskadi, trabajaremos desde la plena colaboración y coordinación interinstitucional, con el sector y con los y las deportistas vascas.

## ITXIERA

Batzorde-buru andrea, Legebiltzarkideok, hedabideok...

Kultura, Hizkuntza Politika eta Jarduera Fisikoa eta Kirol arloan hasi berria den legealdi honetarako gure asmo eta konpromisoen berri eman dizuegu goiz honetan.

Ziurgabetasunez beteriko legealdia izango da. Hori da ziur dakigun gauza bakarra.

Ez dakigu osasun egoerak ze bilakaera izango duen, ez gurean, ez eta nazioartean.

Ez dakigu txertorik, edo tratamendu benetan eraginkorrik izango dugun, eta izatekotan noiz.

Ez dakigu bilakaera horrek gure bizitza sozial, kultural eta ekonomikoari nola eragingo dion.

Baina hain zuzen, ziurgabetasunari aurre egiteko modua burua argi izatea da: Gobernu bezala datozen lau urteetarako programa, alegia, zer eta nola egin ondo definituta izatea, eta horren gainean egoera berrietara moldatzeko gaitasuna izatea.

Eta hori da gaur plazaratu dizueguna.

Sortuko dira gora-beherak. Etorriko dira enbatak.

Baina ez gara bidean galduko, badakigulako nora goazen eta nondik joan behar dugun. Eta bide hori elkarrekin egin nahi dugulako:

- erakundeon arteko lankidetzan;
- alderdien arteko adostasunarekin,
- kultura / euskara / eta kirol arloko gizarte-eragile eta sektoreekin elkarlanean,
- eta beti herritarren eta euskal gizartearen mesederako.

Hori da gure zeregina, konpromisoa eta borondate irmoa zerbitzari publiko bezala; apaltasunez, Herri honekiko begirunez, eta etorkizun hobe bat eraikitzeko konpromisoz.

Eskerrik asko zuen arretagatik.